

## HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA

### 2024ko URTARRILAREN 23a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita laugarren urtean, urtarrilaren hogeita hiruan, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2024ko urtarrilaren 15ean afixatua izan zen eta 2024ko urtarrilaren 15ean posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	14	
Bozkatzaileak	15	

**Hor zirenak:**

BIBES Jean Paul jauna, BIDART Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea.

**Bilkura denboran heldu da:** ARANGOITS Isabelle anderea (4. puntua eztabaidatzekotan zenean)

**Ahalordea:** OLCOMENDY Betti jaunak ahalordea emana zakon MOCHO Frantxoa jaunari

**Bilkurara ezin etorria jakinarazia zuen:** OLÇOMENDY Betti jaunak

Bilkurako idazkaria izendatu da: BIBES Jean Paul jauna

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

#### **Aipagaiak**

- Gasa trinketaren kudeatzaileari birfakturatzeko moldeen onartzea
- Herri kanpalekuaren prezioen aldaketa
- Agence France Locale agentziako hartzedun batzuei bermeak ematea
- Inbestimendu gastuen ordaintzea 2024ko aurrekontua bozkatu aitzin
- Baigorriko Ibarreko Sindikatu Batzordearen deliberoaren onartzea lursail baten jabetza-eskubidearen erregulartzeko
- 2024ko errepide obrak – dirulaguntza galdatzea Departamenduari
- Gai orotarik

#### **0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA**

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2023ko abenduaren 23ko bilkuraren bilduma onartu du.

## **1-2024-1 DELIBEROA – GAS KONTSUMOA TRINKETAREN KUDEATZAILEARI BIRFAKTURATZEKO MOLDEEN ONARTZEA – 9.1 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak jakinarazi du hitzartu dela trinketaren kudeatzaileak herriari ordaindu behar dizkiola gas hornikuntza fakturak, kontratua Herriko Etxearekin egin baita. 2021ean, Herriko Etxeak kontratu berria hartu zuen (propano biologikoa) energia berdea lehenesteko. Kontratu berri horretan tarifak ohiko propanorako kontratu batekoak baino gorago dira.

Beraz, kudeatzaileak galdatu du ohiko propanoaren prezioa pagatzea. Jaun auzapezak proposatu du trinketaren kudeatzailearen galdeari ihardestea eta ohiko propanoaren eta propano biologikoaren prezioaren arteko diferentzia ordaintzea.

Kontratuduna den Herriko Etxeak ordaindu fakturretan bermaturik, kudeatzaileari ohiko propanoaren prezioaren arabera birfakturako zaio, fakturen daten arabera.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

- **ONARTU** ditu gorago aipatu gasaren birfakturazio moldeak
- **ARDURA eman dio** jaun auzapezari urrats guzien betetzeko

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 14

ALDE: 14

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): //

## **2- 2024-2 DELIBEROA - HERRI KANPALEKUAREN PREZIOEN ALDAKETA – 7.10 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio egoki litzatekeela herri kanpalekuko zenbait prezio berrikustea, **2024ko otsailaren 1etik goiti**.

<b>Helduak</b>	<b>6.00 €</b>
<b>7 urtez peko haurrak</b>	<b>2.40 €</b>
<b>Pertsona bat gehiago 18 urte arte</b>	<b>4.20 €</b>
<b>Autoa</b>	<b>3.60 €</b>
<b>Motoa</b>	<b>3.00 €</b>
<b>Elektrika lotura</b>	<b>3.60 €</b>
<b>Egokigailu elektrikoaren erostea</b>	<b>19.00 €</b>
<b>Egokigailu elektrikoaren alokatzea</b>	<b>1.50 €</b>
<b>Jantzi-garbigailurako txanpona</b>	<b>4.80 €</b>
<b>Dutxa (kanpalekutik kanpoko pertsonentzat)</b>	<b>3.00 €</b>
<b>Aparkatzea/gaueko</b>	<b>4.80 €</b>
<b>Zakurra</b>	<b>1.50 €</b>
<b>Edariak</b>	<b>2.50 €</b>
<b>Izozkiak</b>	<b>1.50 € /2.50 €</b>
<b>Kafea, dutea, infusioak</b>	<b>1.00 €</b>
<b>Egonaldi zerga</b>	<b>0.29 €</b>
<b>Ur zikinak husteko eta betetzeko prezio finkoa</b>	<b>2.00 €</b>
<b>2 heldu + ibilgailua + elektrika (egonaldi zerga gabe): prezio finkoa</b>	<b>18.00€</b>
<b>2 heldu + ibilgailua (egonaldi zerga gabe): prezio finkoa</b>	<b>14.00€</b>

2024ko URTARRILAREN23ko txostena

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

**ONARTU du** herri kanpalekuko prezioak gorago seinalatuaren arabera finkatzea 2024ko otsailaren 1etik goiti.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 13

Bozkatu dutenen kopurua: 14

ALDE: 14

KONTRA: /

ABSTENTZIOA(K): //

### **3- 2024-3 DELIBEROA- AGENCE FRANCE LOCALE AGENTZIako HARTZEDUN BATZUEI BERMEAK EMATEA 2024. URTERAKO – 7.3 NOMENKLATURA**

#### ***Herriko Kontseiluak:***

*Ikusirik Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra, eta bereziki 1611-3-2 artikulua;*

*Ikusirik Agence France Locale enpresako bi sozietateen estatutuak, eta kontuan harturik Agence France Locale agentziari lehen eskaerako berme autonomo bat emateko beharra Agence France Locale agentziako hartzedun batzuen probetxutan, **Baigorriko herriaren** zorraren mailan, **Baigorriko herriak** maileguak hartzeko Agence France Locale agentzian;*

*Ikusirik Bermearen mekanismoa deskribatzen duen dokumentua, hots, data honetan indarrean den 2016-1 Modeloa;*

#### **Eta, deliberatu ondoan:**

- **ERABAKI du** Baigorriko herriaren Bermea baldintza hauetan emanen zaiela Agence France Locale agentziak eman dokumentuen edo agirien jabeei (*hartzailleak*):

2024rako eman daitekeen bermearen zenbateko goren **Baigorriko herriak** 2024an egin ditzakeen maileguen zenbateko gorenaren heinekoa da,

Bermearen gehieneko iraupena **Baigorriko herriak** 2024an Agence France Locale agentziari egin mailegurik luzeenaren iraupenaren heinekoa da, gehi 45 egun.

hartzaille bakoitzak Bermeaz helegiten ahalko du hartzaille baten edo batzuen ordezkari baimendu baten bidez edo Lurraldeko Sozietatearen bidez; eta

Bermeaz helegiten bada, **Baigorriko herriak** hitzematzen du galdatu zaion zenbatekoen ordaintzea 5 lan egun barne;

- Auzapezak 2024. urterako eman Berme kopurua Agence France Locale agentzian hartu mailegu kopuruaren parekoa izanen da, jatorrizko erreferentziazko aurrekontuan idatzi kopuruaren neurrian, eta Berme bakoitzaren zenbateko goren **Baigorriko herriak** engaiamendu agirian agertzen den zenbatekoaren parekoa izanen da;

- **BAIMENDU du** auzapeza edo haren ordezkaria, 2024an **Baigorriko herriak** hartu berme engaiamendua(k) izenpetzera gorago finkatu baldintzen arabera, Bermearen ezaugarri guztiak aurkezten dituzten eta eranskinetan diren modeloen arabera;

- **BAIMENDU du** jaun auzapeza erabaki honen plantan ezartzeko dokumentu oro izenpetzera.

2024ko URTARRILAREN 23ko txostena

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 13  
Bozkatu dutenen kopurua: 14  
ALDE: 14  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): //

#### **4- 2024-4 DELIBEROA - INBESTIMENDU GASTUEN ORDAINTZEA 2024KO AURREKONTUA BOZKATU AITZIN – 7.1 NOMENKLATURA**

Auzapezak oroitarazi du Lurralde Elkargoen Kode Nagusiko L. 1612-1 artikulua arabera, Herriko Kontseiluak baimena emanik, auzapezak inbestimendu gastuak engaiatu, kitatu eta mandatua eman dezakeela, aitzineko kontualdian ireki maileguen laurdenaren neurrian: hots, 1 137 726.58 €/4: hots, **284 431.00 €**. Baimen hori beharrezkoa da Herriko Etxeak urte hastapenean inbestimendu gastu berriei buru egin behar dienean, aurrekontua bozkatua izan arte.

Auzapezak kontseiluari jakinarazi dio inbestimendu gastuak postu hauetarako direla:

- 114 op: Errepideak berritzeko obrak: 50 000.00 €
- 120 op: Herriko eraikinak: 60 000.00 €
- 175 op: materialaren erostea: 2 000.00 €

Zehaztu du dagozkien kredituak aurrekontuan idatziko direla.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

**BAIMENDU du** auzapeza inbestimendu gastuak engaiatzera, kitatzera eta mandatua ematera, aitzineko kontualdian ireki maileguen laurdenaren neurrian operazio hauetarako:

114 Operazioa: errepideen berritzea: 50 000,00 € 2151 kontuan

120 Operazioa: Herriko eraikinak: 20 000,00 € 2131 kontuan

40 000.00 € 2138 kontuan

175 Operazioa: materialaren erostea: 2 000.00 € 2188 kontuan

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): //

#### **5- 2024-5 DELIBEROA- BAIGORRIKO IBARREKO SINDIKATU BATZORDEAREN DELIBEROAREN ONARTZEA LURSAIL BATZUEN JABETZA-ESKUBIDEAREN ERREGULARTZEKO – 9.1 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak irakurri du Baigorriko Ibarreko Sindikatu Batzordearen deliberoa, lursail-jabetza eskubidearen erregularizazioari buruzkoa.

Alabaina, C40 eta 41 lursailak, Urepeleko C 576 eta 578 saileko lursail berriek ordezkatu dituzte eta zuzenkontra Sindikatu Batzordearen kadastran ezarri dira.

Jaun auzapezak zehaztu du Sindikatu Batzordeko lehendakariordeak proposatu duela jabetza eskubidea erregulartzea eta lursail horiek BIDART jaunaren kadastran ezartzea.

Jaun auzapezak Kontseiluari proposatu dio jabetza eskubidearen erregulartze horren onartzea eta jaun lehendakariordeari baimena ematea afera horri doazkion dokumentu oro izenpetzeko.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

**ONTZAT eman du C saileko 576 eta 578 lursailen jabetza eskubidea erregularitzeko galdea**

**BAIMENDU du** jaun lehendakariordea beharrezko agiri oro izenpetzera

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): //

## **6. 2024-6 DELIBEROA – 2024ko ERREPIDE OBRETARAKO DIRULAGUNTZA GALDEA -7.5 NOMENKLATURA**

Jaun auzapezak 2024ko errepide obretarako ukan aurrekontuak aurkeztu ditu: zenbatekoa, **165 461.03 €** (BEZa gabe).

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan,

**ONARTU du** 2024ko errepide obrei doazkien aurrekontuen zenbatekoa, **165 461.03 €** BEZa gabe.

**ARDURA eman dio** jaun auzapezari errepide obretarako dirulaguntza galdatzeko Departamendu Kontseiluari.

**ZEHAZTU du** aurrekontuan aurreikusia izanen dela

Kargutan diren kideen kopurua: 15  
Hor ziren kideen kopurua: 14  
Bozkatu dutenen kopurua: 15  
ALDE: 15  
KONTRA: /  
ABSTENTZIOA(K): //

---

### **AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:**

/

### **GAI OROTARIK**

/

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea (4. delibero denboran heldu da), BIBES Jean Paul jauna, BIDART Pierre, *Betti* jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD H el ene anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agn es anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna

Bilkuran hartutako deliberoak 1etik 6ra zenbakituak dira.

<u>Auzapezaren izenpedura</u>	<u>Bilkurako idazkariaren izenpedura:</u>